

ERRETERIA / Haurrentzako ipuinak kontatuko dituzte bihar

**Haurrentzako Liburutegian izango da hitzordua, arratsaldeko
18:00etan**

J. Gonzalo

Aurreko urteetan bezala, Erreteriako Liburutegiko Haurrentzako Sailak ipuin-kontakteten zikloa jarri du abian. Ipuinaren Ordua izenburupean ostegunero egingo dituzte ipuin kontaktak Hurren Liburutegian (Xenpelar Etxeko 2. solairuan).

Ikasturteko lehenengo saioa bihar izango da. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Me llevo un cuento a la escuela, a ver si cuela! gaztelerazko ipuina kontatuko dute. Datorren ostegunean, berriz, euskarazko saioaren txanda izango da. Izenburua honako hau: Ipuinez beteriko maletatxo. Hilabetero, bi saio izango dira euskaraz eta beste bi gazteleraz.

Informazio gehiago nahi duenak 943 449 635 telefonora deitu behar du, eta Mari Jose Pascualengatik galdetu.